



PRENTSA OHARRA

Kerstin Poltek, Greta Benkelmannek eta Lion H. Lauk lortu dute **Showrunner** onenaren saria Seriesland – Bilbao International Digital Festival jaialdiaren 10. edizioan, nortasun ez-bitarraren aurkikuntzari buruzko istorioa kontatzen duen **“Becoming Charlie”** filmarekin

- Alex Urdialesen “Explorando el Norte” serie dokumentalak Euskal Serierik Onenaren Laboral Kutxa Saria irabazi du, eta, beraz, Alemaniako Die Seriele jaialdietan izango da.
- Talentu gazteari eta sortzen ari denari laguntzeko helburua duen Pilotu onenaren sari berria, Eva Justine Torkkolaren “Lady Priest” lan australiarrarentzat izan da.

Bilbon, 2024ko azaroaren 9an. Bizkaiko Foru Aldundiak, BEAZek eta Bilboko Udalak Bilbao Ekintza udal-sozietatearekin babesten duten Seriesland – Bilbao International Digital Festival jaialdiaren hamargarren edizioak bere palmaresaren sariak banatu zituen bart Guggenheim Bilbaon egindako galan. Euskal lehiaketako sari ikoniko bihurtu den Showrunner onenaren saria **Kerstin Polte, Greta Benkelmann eta Lion H. Lau** alemaniarrek jaso dute, nortasun ez-bitarraren aurkikuntzaren inguruko istorioa kontatzen duen **“Becoming Charlie”** (Alemania, 2022) lanarengatik.

“Becoming Charlie” sei kapituluko (15') serieak jaialdiko **“Diversity Award”** sari berria ere eskuratu du. Izan ere, bere nortasun ez bitarraren aurkikuntzak, Charlie (Lea Drinda) ez ezik, bere ingurua ere bere erosotasun-eremutik kanpo bultzatzen du, eta itxuraz egia ukaezinak direnak astintzen ditu. Badirudi rap musika bakarrik dela konstantea Charlierentzat, eta irtenbidea bere sentimenduentzat. Hogeita piku urte dituen Charlie ohiko egoeretatik dator, eta oraindik bere bizitza eta familiaren finantzak kontrolpean ez dituen Rowena amarekin bizi da. Charlieek janari-banatzaille gisa egiten du lan, eta gero eta gehiago nabaritzen du inguruko espektatibak ez datozela bat sentitzen duen moduarekin.

Mariia Elisevak, Silvia Constantinescuk eta Bryan Thompsonnek osatutako epaimahaiak zuzendari alemaniarrek egindako lana baloratu du, bere ikuspegi narratibo berritzailearengatik, bere pertsonaien sakontasunarengatik eta ikus-entzuleekin alderdi emozionaletik konektatzeko duen trebetasunarengatik, showrunner taldearen bikaintasun sortzailea nabarmenduz.

Euskal serieei dagokienez, **Alex Urdialesen “Explorando el Norte”** serie dokumentalak Euskal Serierik Onenaren Laboral Kutxa Saria lortu du. Saridunak ordaindutako bidaiak eta plaza bat izango du Alemaniako **Die Seriele** jaialdiko selekzio ofizialean, baina Torontoko,

Erromako DMF, Minnesotako eta Hollywoodeko jaialdietan ere egongo da. Bidaiei buruzko "Explorando el Norte" 8 ataleko serie dokumentala da. Bidaia baten bidez, Iberiar Penintsulako iparraldeko leku ikusgarrienetako batzuk bisitatuko ditugu. "Wild China" telesail euskalduna aukeratu dute Brasilgo Rio Web Festen parte hartzeko eta "Ardibeltzak" Italiako Tulipani di Seta nera jaialdiko selekzio ofizialean arituko da.

Talentu gazteari eta sortzen ari denari laguntzeko helburua duen Pilotu onenaren sari berria, Eva Justine Torkkolaren "Lady Priest" lan australiarrantzat izan da. 48 orduan grabatutako trailer onenaren Xpress saria Patricia Uriaren "Ekis" filmarentzat izan da

500 pertsona baino gehiago izan dira jaialdiaren hamargarren edizio honetako proiektioetan, eta berrogeita hamar enpresa inguruk zuten parte ikus-entzunezkoen sektoreko profesionalentzako BASQUEGUNA jardunaldian. Bertan, Euskadiko eta nazioarteko sormen-enpresak bildu dira, erronka teknologiko berrien eta adimen artifizialaren inguruko esperientziak trukatzeko.

SERIESLAND – BILBAO INTERNATIONAL DIGITAL FESTIVAL / SARIAK 2024

EPAIMAHAIAREN SARI NAGUSIA SHOWRUNNER ONENARI

Becoming Charlie

Kerstin Polte, Greta Benkelmann eta Lion H. Lau - ALEMANIA

SERIE LUZE ONENA

El Método

Mariano Minestrelli - ARGENTINA

SERIE LABUR ONENA

I Will Bury You

Ravi Steve Khajuria - KANADA

GIDOI ONENA

Monologue

Jim Wright - AUSTRALIA

ANTZEZLE ONENA

Sabina Seksenbaeva/ Escort: A New Call - KAZAKHSTAN

ANTZEZLE TALDE ONENA

Pulp Air

Anita Pico - GALIZIA

DRAMA ONENA - EX AEQUO

The Meteorites

Nadia Louis-Desmarchais - KANADA

L'ora Alternativa.
Ali mohamed - ITALIA

KOMEDIA ONENA

House Of Switzerland
Bernie Forster - SUITZA

EKOIZPEN DISEINU ONENA

Lada Gold
Nikita Vlasov - ERRUSIA

ARGAZKI ONENA - EX AEQUO

Last Quest
Nikita Vlasov - ERRUSIA
La Terre Apelle Mathilde
Francis Corbeil-Savage - KANADA

PROGRAMA ONENA

Altitudes
Thaller Louise - SUITZA/NEPAL

DOKUMENTAL ONENA

In Our Care. The Keepers Choice
João Estrada - PORTUGAL

AURKEZLE ONENA

This Is Spain
Kirk Flash – ERRESUMA BATUA

EMAKUME SORTZAILEAREN ARTEMIS SARI BEREZIA - EX AEQUO

Ren: The Girl with the Mark - T2
Kate Madison, Christopher Dane, Jonnie Howard, Sophie Black - ERRESUMA BATUA
Zyara To Yemen
Muriel Aboulrouss - LIBANO

PILOTU ONENA

Lady Priest
Eva Justine Torkkola - AUSTRALIA

AURREKONTU TXIKIKO SERIE ONENA

Poscoito
Héctor Rodríguez - GALIZIA

GAI SOZIALARI BURUZKO ARGI SARI BEREZIA

Altitudes
Thaller Louise - SUITZA/NEPAL

ANIZTASUNAREN SARIA

Becoming Charlie

Kerstin Polte, Greta Benkelmann eta Lion H. Lau - ALEMANIA

EUSKAL SERIE ONENA

Explorando El Norte

Alex Urdiales

XPRESS LABORAL KUTXA LEHIAKETAREN IRABAZLEA

Ekis - Patricia Uria

PRENTSA KABINETEA

Irma Cerro (MBN Comunicación)

irmacerro@grupombn.com

T: 94 435 63 30 / 628 538 215